

# eTwinning gida lasterra

Gida hau eTwinning-erako sarrera izateko pentsatua da. Baldin eta hemen aurkezten diren aspekturen batzuei buruzko informazioa zabaldu nahi baduzu, dokumentu honetan topatuko dituzun loturetan klikatu besterik ez duzu edo gure [www.etwinning.es](http://www.etwinning.es) weba kontsultatu.

<b>Zer da eTwinning?</b>	<b>2</b>
<b>Irakaslearen Profila</b>	<b>2</b>
<b>Eman Ezazu Izena</b>	<b>2</b>
<b>Zer Eskaintzen Du Etwinning-Ek?</b>	<b>2</b>
Informazioa	2
Prestakuntza	3
Tresnak	3
Ideiak eta esperientziak	3
Merezimenduen aitortpena	3
Asistentzia	3
<b>Nire mahaigaina</b>	<b>4</b>
<b>eTwinning proiektuak</b>	<b>4</b>

## »»» Zer da eTwinning?

eTwinning Europar Batzordearen hezkuntza ekintza bat da Etengabeko Ikaskuntzako Programaren barruan Comenius programaren lagungarri sortua.

Gure helburua da eTwinning-en parte hartzen duten herrietako irakasleen eta ikasleen arteko harremana, ideien trukea eta elkarlana sustatzea eta erraztea, IKTen bidez.



Ekintza hori Europa osoan koordinatzeko eTwinning-ek badu Laguntza Zerbitzu Nagusi bat Bruselan eta Laguntza Zerbitzua Nazionala (LZNZ) herri banatan. Espainiaren kasuan, LZNZ Hezkuntza Ministerioaren Hezkuntza Teknologien Institutuan dago eta autonomi erkidego bakoitzak badu bere eTwinning ordezkarria (aurki dezakezu informazio gehiago [www.etwinning.es](http://www.etwinning.es) helbidean).

## »»» Irakaslearen profila

**Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasgai guztietako** irakasleek har dezakete parte.

eTwinning aukera bikaina da hizkuntzak praktikatzeko, nahiz eta hizkuntzak jakitea ez den proiektu batean parte hartzeko ezinbesteko baldintza –ikastetxe europar asko daude proiektuak espainolez egin nahi dituztenak. Era berean, oinarrizko tresnak erabiltzen ohituta egon beharra dago parte hartu ahal izateko, IKTetan aditua izan beharrik ez badago ere.

## »»» Eman ezazu izena

eTwinning-ek dituen aukerak baliatu ahal izateko **plataforman izena eman** besterik ez da egin behar. Izena emateak ez dakar berekin inolako konpromisorik, ez zuretzat ez zure ikastetxearentzat. Izena ematea hauxe besterik ez da: Europako irakasle elkarterik handieneko partaide bihurtzea eta eTwinning-eko irakasle eta ikastetxeen direktorioan egotea.

Izena emateko prozesua erraza da. Lehenik, zure izen-deiturak eskatuko dizkizugu, zure posta-helbide elektronikoa (jar ezazu arreta berezia datu horretan okerrik ez egiten, eta, ahal dela, erabil ezazu posta-kontu instituzional bat), eta eskatuko dizugu, halaber, erabiltzaile-izena eta pasahitza hautatzeko. Informazio hori bidalitakoan, mezu bat jasoko duzu zuk eman duzun helbide horretan. Mezu horretan lotura bat agertuko zaizu izena emateko prozesua zure eTwinning-eko

profilean agertuko den informazioarekin osatzeko (informazio hori izena eman eta gero eguneratuko dugu) (**Informazio gehiago**)

**OHARRA:** Inskribatzean emandako datuak egiaztatu egiten dituzte Laguntza Zerbitzu Nazionalak eta dagokion autonomia erkidegoak egindako erregistroa irakasle batena dela ziurtatzeko.

## »»» Zer eskaintzen du eTwinning-ek?

» **Informazioa:** eTwinning-i buruzko informazioa aurkitu ahal izango duzu (elkartea, proiektuak, lehiaketak, sariak, eta abar) honako hauetan:

[www.etwinning.net](http://www.etwinning.net) (Europa mailan)

[www.etwinning.es](http://www.etwinning.es) (nazio mailan)

**Autonomia erkidegoen webak** (kontsulta ditzakezu hemen [www.etwinning.es](http://www.etwinning.es))



[www.etwinning.es](http://www.etwinning.es)



[www.etwinning.net](http://www.etwinning.net)

› **Prestakuntza:** eTwinning-ek hainbat aukera eskaintzen dizkizu zeure prestakuntzarako, bai plataformaren erabileran bai irakasleen garapen profesionalarekin zerikusia duten beste alderdi batzuetan ere.

- › **eTwinning ikastaroa.** Ikastaro honetan eTwinning-i buruz eta plataformaren erabilerari buruz jakin beharreko guztia azaltzen da. Urtean deialdi 1 edo 2 egiten dira (iraila eta urtarrila) “urrutiko ikastaro” eran. Dena dela, ikastaro honen edukia eskuragarri egoten da eTwinning-en interesa duen irakasle ororentzat.
  - › Baldin eta ikastaroa egiteko interesa baduzu, kontsulta itzazu deialdiak [www.etwinning.es](http://www.etwinning.es) orrian eta eman ezazu izena. Prestakuntzako 4 kreditu aitortzen zaizkio ikastaro horri.
  - › **Topaketa Didaktikoak.** Topaketa birtual labur eta trinkoak izaten dira (4 edo 5 egun) hainbat gairen inguruan. Aditu bat izaten dute zuzendari eta lan aktiboa eta Europa osoko irakasleen arteko eztabaidak eskaintzen ditu.
  - › **Training Plataforma.** Probetarako plataforma da, plataforma errealak duen itxura eta funtzio berekin. Irakasleei okerrik egiteko beldurrik gabe eTwinning erabiltzen ikasteko aukera ematea du helburu.
  - › **Garapen Profesionalerako Ikastaroak eta Aldebiko eta Aldeanitzeko Topaketak.** Tailer europar herri batzuetako eta besteetako profesionalak biltzen dira elkarren artean konektatzeko eta esperientziak konpartitzeko. Europar irakasleentzako konexiorako eta kideak bilatzeko tailerrek ikasturte osoan zehar funtzionatzen dute.



› **Tresnak:** eTwinning plataforman izena emandakoan honako tresna hauek izango dituzu eskura:



- › **Komunikaziokoak.** eTwinning Komunitateko partaide izanik mahaigain bat eta profil bat dituzu zuk zeuk pertsonalizatu ditzakezunak, bilatzaile bat ere bai Europa osoko irakasleekin kontaktuak egiteko, kontaktuen sekzio bat eta barne-mezularitza.
- › **Proiektuak kudeatzekoak:** zure ikasleekin eta beste lankide europar batzuekin proiektu bat egin nahi baduzu, eTwinning-ek lan-ingurune seguru bat jartzen dizu eskura, TwinSpace deritzona, eta Proiektuaren Egunkari bat ere bai, non jaso ahal izango dituzun egiten dituzuen aurrerapausoak eta Laguntza Zerbitzu Nazionalarekin kontaktatu.

› **Ideiak eta esperientziak:** Gure web nazionalan ([www.etwinning.es](http://www.etwinning.es)) eta web europarrean ([www.etwinning.net](http://www.etwinning.net)) hainbat jarduera eta proiektu adibide topatuko dituzu, zeure proiektuetarako ere abiapuntu egokiak izan daitezkeenak.

› **Merezimenduen aitortpena:** eTwinning-ek hainbat modu ditu irakasleen lanari zor zaion aitortpena emateko.

- › Kalitate Zigilu Nazionala
- › Kalitate Zigilu Europarra
- › Sari Nazionala
- › Sari Europarra
- › Prestakuntza kredituak
- › Argitaratzea eta hedapena



› **Asistentzia:** eTwinning-en baduzu Laguntza Zerbitzu Nazionalaren laguntza eta asistentzia tekniko eta pedagogikoa. Programari, plataformaren erabilerari nahiz proiektu baten garapenari buruzko zalantzaren bat ebatzi edo zer edo zer argitu nahi izanez gero, jar zaitezke harremanetan zure LZNZrekin honako helbide hauen bidez: [informacion@etwinning.es](mailto:informacion@etwinning.es) edo [asistencia@etwinning.es](mailto:asistencia@etwinning.es). Horrez gain, [www.etwinning.es](http://www.etwinning.es) helbidean badituzu eskuliburu eta laguntzako dokumentuak eta maiz egiten diren galderen sekzio bat.

Halaber, kontsulta egin diezaiokezu zure Autonomia Erki-degoko eTwinning ordezkariari ere (ikus ordezkariak [www.etwinning.es](http://www.etwinning.es) helbidean).

## »»» Nire mahaigaina

eTwinning-en izena emandakoan mahaigain birtual bat izango duzu zeuk pertsonalizatu dezakezuna. Gainera, eguneratu ahal izango duzu zure informazioa eta zeure ikastetxearena, eta topatuko dituzu bertan Europako gainerako herrietako irakasleekin kontaktatzeko tresnak (kide-bilatzailea, kontaktuen agenda, proiektu-kudeatzailea, foroa, barne-mezularitza,...). Labur esateko: Europako gainerako herrietara begiratzeko gure leihoa. (Mahaigainari buruzko informazio gehiago)



## »»» eTwinning Proiektuak

Los proyectos eTwinning favorecen el aprendizaje en colaboración: los alumnos aprenden unos de otros, interactúan, se comunican y, de este modo, se sienten responsables de su propio aprendizaje.



eTwinning proiektuek elkarlaneko ikaskuntza errazten dute: ikasleek elkarrengandik ikasten dute, elkarrengaitan dute, komunikatzen dira eta, hala jokatu, beren ikaskuntza propioaren arduradun sentitzen dira.

eTwinning proiektu bati ekiteko nazio desberdinetako bi irakasleek parte hartu behar dute gutxienik. Hasi eta gero irakasle gehiago ere bil daitezke proiektura, edozein naziotakoak. Gaia, berriz, edozein izan daiteke parte-hartzaileek adostuta.

Proiektua onartutakoan, irakasle eta ikasle parte-hartzaileek beren jardunerako lan-esparru seguru bat zango dute (TwinSpace). Esparru birtual horretan parte-hartzaileek hainbat tresna izango dituzte eskura, hala nola, blogak, foroak, wikiak, irudi galeria, eduki kudeatzaileak, txata, etab. Horrez gain, Aurrerapenaren Egunkari bat ere izango dute, proiektuaren bilakaera jasotzeko.

**eTwinning proiektuei buruzko informazio gehiago**  
**TwinSpace-ri buruzko informazio gehiago**

